



**UPV/EHUko MASTER AMAIERAKO LANETAN GENERO IKUSPEGIA BARNE HARTZEAREN MARÍA GOYRI SARIAREN VI. EDIZIOAREN DEIALDIA  
-2016/2017 ikasturtea-**

**CONVOCATORIA DE LA VI EDICIÓN DEL PREMIO MARÍA GOYRI A LA INCLUSIÓN DE LA PERSPECTIVA DE GÉNERO EN LOS TRABAJOS DE FIN DE MÁSTER DE LA UPV/EHU  
- Curso 2016/2017-**

**1. DEIALDIAREN HELBURUA ETA APLIKAZIO EREMUA**

UPV/EHUko emakume eta gizonen berdintasunerako II. Planaren (2014-2017) 1.4.2 puntuan aurreikusitako ekintza betez, "Genero ikuspegia barneratzen duten UPV/EHUko lan onenei emandako (...) María Goyri -master amaiera- sariak errotzea", alegia, UPV/EHUK MARIA GOYRI sariaren VI. ediziorako deialdia egiten du master amaierako lanetan genero ikuspegia barne hartzeari dagokionez, ikasleek ezaugarri horrekin eginiko lanik onenak aintzatesteko, jakitera emateko eta saritzeko.

Aurkeztzen diren lanen kalitateak hala eskatuz gero, saria partekatu egin ahal izango da.

Eta, UPV/EHUren eleaniztasun politika eta jakintza adar desberdinak daudela (Artea eta Giza Zientziak; Zientziak; Osasun Zientziak; Gizarte eta Lege Zientziak; eta Ingeniaritza eta Arkitektura) kontuan hartuta, 6 accesit ere eman ahal izango dira, beren kalitatearengatik epaimahaiaren iritziz halako aipamena merezi duten lanentzat.

Saridunek diploma bat, eta dekorazio-objektu bat jasoko dituzte

**2. ESKAERAK FORMALIZATZEA, ENTREGATZEA ETA EPEAK**

UPV/EHUko Master ofizial bakoitzeko Batzorde Akademikoak aukeratuko ditu sarira aurkeztuko dituen lanak. Lanek 2016-2017 ikasturtean defendatuta eta gainditutakoak izan behar dute.

**1. OBJETO DE LA CONVOCATORIA Y ÁMBITO DE APLICACIÓN**

En cumplimiento de la acción prevista en el Punto 1.4.2 del II Plan de Igualdad de mujeres y hombres de la UPV/EHU (2014-2017), "Consolidar los premios (...) María Goyri -fin de máster- al mejor trabajo con perspectiva de género de la UPV/EHU.", la UPV/EHU convoca la VI Edición del Premio MARÍA GOYRI a la inclusión de la perspectiva de género en los trabajos de fin de máster para reconocer, publicitar y premiar los mejores trabajos de esas características de su alumnado.

Si la calidad de trabajos presentados así lo indicase el premio podrá ser compartido.

Y, teniendo en cuenta la política de plurilingüismo de la UPV/EHU y la existencia de diferentes ramas de conocimiento (Artes y Humanidades; Ciencias; Ciencias de la Salud; Ciencias Sociales y Jurídicas; e Ingeniería y Arquitectura), cabrá la posibilidad de conceder hasta 6 accesits a aquellos trabajos que, por su calidad, mereciesen tal mención a juicio del Jurado.

Las personas premiadas recibirán un diploma, y un objeto decorativo.

**2. FORMALIZACIÓN, ENTREGA Y PLAZOS DE LAS SOLICITUDES**

La Comisión Académica de cada máster de la UPV/EHU será la encargada de proponer los trabajos al Premio. Estos trabajos deberán haber sido defendidos y aprobados durante el curso académico



2016-2017.

Master bakoitzeko lan bat edo bi aurkeztu ahal izango dira. Bi lan aurkezten badira, horietako batek euskaraz izan beharko du. UPV/EHU hizkuntza ofizialak ez diren hizkuntza batzuetan jarduten duten masterrek hizkuntza horietan defendaturiko beste lan bat aurkeztu ahal izango dute

Deialdian parte hartzeko, Batzorde Akademikoak deialdi honi erantsitako eskabide orria aurkeztu beharko du.

Aurkeztutako lanak, tituluarekin eta edukiaren laburpen batekin (500 hitz gehienez) posta elektronikoz bidali behar dira, doc, docx pdf edo .odt formatuan, [berdintasuna@ehu.eus](mailto:berdintasuna@ehu.eus) helbidera, egilearen, tutorearen, masterraren izenik gabe. Mezuan zein jakintza alorrekoa den adierazi behar da.

Eskaerak aurkezteko epea **2017ko azaroaren 9an amaituko da.**

Eskaerak Erregistro Orokorraren edozein bulegotan aurkeztuko dira, Berdintasunerako Zuzendaritzari zuzenduta (Berrikuntzaren Gizarte, Konpromisoaren eta Kulturgintzaren Arloko Errektoreordetza, Sarriena auzoa zk.g., 48940 Leioa).

Aurkeztutako dokumentazioa osatu gabe baldin badago edo zuzendu daitezkeen akatsak baldin badaude, saria eskatu duen Ikastegiko Berdintasunerako Batzordeari 10 egun baliouduneko gehienezko epea emango zaio akatsa zuzentzeko edo beharrezkoak diren dokumentuak aurkezteko, eta ohartaraziko zaio, hala egin ezean, bere eskaera utzietsizat joko dela.

Cada Comisión Académica podrá presentar 1 ó 2 trabajos por Máster, en caso de ser dos los trabajos presentados al menos uno de ellos habrá de ser en euskera. Aquellos másteres que se imparten en otra lengua distinta de las oficiales en la UPV/EHU, podrán presentar, adicionalmente, un trabajo en dicha lengua.

Para participar en la convocatoria la Comisión Académica deberá presentar el impreso de solicitud que acompaña a esta convocatoria.

Los trabajos presentados, **sin ningún elemento identificativo sobre su autoría, tutoría o máster del que provienen**, deberán ser enviados por correo electrónico a [berdintasuna@ehu.eus](mailto:berdintasuna@ehu.eus) en formato doc, docx pdf, o .odt, acompañados de un resumen de su contenido (máximo 500 palabras). En el mensaje se indicará la rama de conocimiento donde se incluye el máster.

El plazo para la presentación de solicitudes finaliza el **9 de noviembre de 2017.**

Las solicitudes se presentarán en cualquiera de las Oficinas del Registro General dirigidas a la Dirección para la Igualdad (Vicerrectorado de Innovación, Compromiso Social y Acción Cultural, Barrio Sarriena, s/n, 48940 Leioa).

Si la documentación aportada fuera incompleta o presentara errores subsanables, se requerirá a la Comisión para la Igualdad del Centro que solicita el premio para que en el plazo máximo de 10 días hábiles subsane la falta o acompañe los documentos necesarios, con advertencia de que si no lo hiciese, se la tendrá por desistida de su solicitud.



Deialdi honetako epaimahaiak deialdia ebazteko egoki iritzitako informazio osagarri guztia eskatu ahal izango du.

El Jurado de esta convocatoria podrá solicitar cuanta información complementaria considere oportuna para la resolución de la convocatoria.

### 3. PROZEDURA, EPAIMAHAIK ETA EBAZPENA

Epaimahaia UPV/EHUko Berdintasunerako Batzordeko bost irakasle eta ikertzailek osatuko dute. Berdintasunerako batzordeak ez du epaimahaikide izendatuko aurkezturiko lanen egilearekin edota tutorearekin lotura zuzena duen irakaslerik edo ikertzailek.

Ezinbesteko baldintza da lan hizkuntzaren erabilera ez sexista eginez idatzita izatea. <http://www.ehu.eus/es/web/berdintasun-a-direccionparalaigualdad/gida>

Epaimahaiak iritzia eskatu ahal izango die aparteko profesional, ikertzaile edo adituei.

Sariak emateko, lanen balioespena honako hauen arabera egingo da:

- Lanaren kalitatea. Kontuan izango da helburuak behar bezala zehaztuta egotea, datuak doitasunez tratatzea, lana xehetasunez egitea, eta dena argi azalduta egotea.
- Garrantzia eta originaltasuna. Alderdi hauek aztertuko dira: gaiaren, ikuspegiaren edo arloaren berritasuna; interesa; ikerketaren etikako jardunbide egokietarako egokitzapena; eta euskal gizartearekiko lotura.
- Genero-ikuspegiaren tratamendua. Hauek baloratuko dira: ikerketarekin erlazionatutako alderdi guztietan sexu aldagaia txertatzea (parte-hartzaileak, emaitzak, ondorioak ...), eta genero analisia edota gai feministak aztertzea.

### 3. PROCEDIMIENTO, JURADOS Y RESOLUCIÓN

El Jurado estará compuesto por cinco personas del PDI de la Comisión para la Igualdad de la UPV/EHU. La Comisión para la Igualdad velará por que en los Jurados no figuren personas con algún vínculo directo con la autora o autor o con la tutora o tutor de los trabajos presentados.

Es requisito imprescindible que el trabajo esté redactado haciendo un uso no sexista del lenguaje. <http://www.ehu.eus/es/web/berdintasun-a-direccionparalaigualdad/gida>

El Jurado podrá pedir opinión a personas profesionales, investigadoras o especialistas ajenas al mismo.

La valoración de los trabajos para la concesión de los premios se hará en función de:

- Calidad del trabajo donde se incluirán los objetivos debidamente definidos, el rigor en el tratamiento de los datos, la minuciosidad del trabajo, y la claridad expositiva.
- Relevancia y originalidad incluyendo: novedad en la temática, enfoque o área; interés; adecuación a buenas prácticas en ética de la investigación y vinculación con la sociedad Vasca.
- Tratamiento de la perspectiva de género en el trabajo, valorándose: la inclusión de la variable sexo en toda la investigación (participantes, resultados, conclusiones...), el análisis de género y/o la temática feminista.



Halaber, baloratuko da Erreferentzia bibliografikoetan aipatzen diren lanen idazleen izen osoa agertzea.

**Aurreikusitako sariren bat hutsal gera daiteke, ez delako lanik aurkeztu, edota aurkeztu direnenez ez dutelako saririk merezi**

Epaimahaiak 2018ko martxoaren 1a baino lehen argitaratuko du deialdiaren emaitza, <https://www.ehu.eus/eu/web/berdintasuna-direccionparalaigualdad/2016-2017-deialdiak> web orrialdean, honako hauen berri emanez: pertsona irabazlearen izen-deiturak, zein masterretakoa den, tutorearen izen-deiturak eta saritutako lanaren edo lanen laburpena.

Sariak, 2018ko martxoaren 8ko ekitaldi akademikoan banatuko dira, Gipuzkoako Campusean eta saridunek saria jasotzera bertaratzeko konpromisoa onartzen dute.

Sarian parte hartzeak oinarri hauek onartzea dakar.

Así mismo, se valorará que en el apartado final de Referencias bibliográficas, aparezca el nombre completo de la persona autora de los trabajos referenciados.

**Alguno de los premios previstos puede quedar desierto, bien porque no se hayan presentado trabajos o bien por la escasa calidad de los presentados**

El Jurado hará público el resultado de la convocatoria antes del 1 de marzo de 2018 en la página web <https://www.ehu.eus/es/web/berdintasuna-direccionparalaigualdad/2016-2017-deialdiak> dando cuenta del nombre y apellidos de la persona ganadora, máster al que pertenece, nombre y apellidos de la tutora o tutor y resumen del trabajo o trabajos galardonados.

La entrega de los premios se hará en el acto académico del 8 de marzo de 2018 – campus de Gipuzkoa- y las personas premiadas asumen el compromiso de asistir al citado acto para recibir el premio.

La participación en el premio supone la aceptación de estas bases.

Idoia Fernández Fernández

Berrikuntzaren, Gizarte Konpromisoaren eta Kulturgintzaren arloko errektoreordea /  
Vicerrectora de Innovación, Compromiso Social y Acción Cultural